

Arrasate

UPRESS

1996ko
Apirilak 19
316. zenb.



ERREPORTAIA
Biztanleriaren
bilakaera

KULTURA
Zarzuela
Amaia
Antzokian

IKUSPEGIA
Matilde Sainz

Soo bitxo!

**Tunantes del
Norteren azken lana**

RKUZ



altzariak

Udaberri-udako eskaintza bereziak

**MODELOAK
ERDI PREZIOAN!**

Araba Etorbidea, 20 • Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian
Betiko muntaiak



Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97



Aretxabaleta

Eta ikasi noiz arte?

Hezkuntzaz ari garenean haurrak eta gazteak datozkigu burura, hobeto esanda, haurtzaroan eta gaztaroan egiten diren ikasgaiak eta ikasteko tokiak. Gure gizarteak 14-16 urterekin eskola utzi duten gazteen hezkuntza bukatutzak jo du zenbaitetan, pentsatzen baitu, hor bukatzen zaizkiola gazteari betiko formakuntzarako aukerak -gizarteak behin betikoz eskaini dizkionak eta berak errefusatu dituenak-.

Halere, badakigu, eta azken urteotan hamaika alditan entzun dugu, ikasteko garaia ez dela inoiz amaitzen eta ez dagoela garai txarrik ikasten jarraitzeko. Egia esan, gaur egun badago zentzu honetan doan zenbait egitasmo, baina guztira hartuta ere oso motz gelditzen dira ikusten diren beharrak betetzeko. Horregatik, eta aurrera joz etengabeko formakuntzaren ideia honetan, nola bihurtu hau errealitate gure mentalitatea bestelakoa bada, eta gainera, bitartekoak jartzen ez badira?

Egun hauetan Unescok XXI. mendeko hezkuntzaren egitasmoa aurkeztu die bertako gobernukideei. Jaques Delorsentzat hezkuntza da pobrezia, intolerantzia eta gerratearen kontrako tresnarik balio-garriena. Elkarrekin bizi eta beste kulturak ulertzen lagundu behar digu hezkuntzak. Baina jakina, horretarako bitartekoak jarri behar dira, eta horregatik

Delors jaunak proposatzen du garatzeko bidean dauden herrietarako ematen den laguntzaren % 25a hezkuntzan inbertitzea.

Neurri honetaz gain, Unescoren egitasmoaren barruan, eta erreformaren ardatz modura, "bizitzan zeharreko formakuntza" proposatzen da. Ikuspegi honen arabera, bizitzaren edozein momentutan hezkuntza-ziklo berri batera itzultzeko aukera ematen zaio gizakiari, nahiz eta edozer arrazoiengatik ikasketak alde batera utzitako pertsona izan, derri-gorrezko hezkuntza bukatu ondoren. Baina nola gauzatu egitasmo hau? Derrigorrezko hezkuntza bukatzean, hezkuntza-txekea emango zaio gazteari, hainbat urterako formakuntza eskubidea emango diona. Honela, gizaki bakoitzak hainbat ordu libre izateko eskubidea izango du bere formakuntzan erabiltzeko. Honez gain, kapital hau nor beraren diruaz gehitu ahal izango da nahi izanez gero hezkuntzari zuzendutako plan berezi bat dela medio. Modu honetara, esan bezala, eskola utzita gero ere, etengabeko formakuntza jasotzeko eskubide osoa izango luke gizakiak.

Egitasmo honek pertsonari bizitzan zehar bere hezkuntza antolatzeak aukera emango lioke. Horretara bakoitzak bere beharren arabera zertan eta noiz formatu bere burua erabakiko luke.

MATILDE SAINZ OSINAGA



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

**Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Memesa
79 42 22




ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaureritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Azala: Jabier Ozaeta

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA



ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA

Erdiko Kale, 7

Tfnoa: 79 91 64 • ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

Tfnoa: 79 48 77

ARRASATE

Jose Mari Mendizabalen izaera

Joan den apirilaren 3an, urtebete Jose Mari Mendizabal hil zela. Ixil ixilik aldegin zuen, azkar.

Behar bada intuizioa izango zen, seigarren zentzu bat, ez dakit, baina berak esaten zuen "hemen egin beharreko guztia eginda zeukala". Azkenaldian bere idatzietan, mezatan, edo berarekin hitzegiterakoan Aitarren Etxerako bidaia prestatzen ari zen gizon baten itxura ematen zuen. Prest zegoen, horrela erakusten zuen. Gauza materialengandik erabat urrunduta.

"Tolerantzia" hitza hain modan dagoen une honetan Jose Mari hitz hori pertsona bihurtuta zela esan daiteke, jende guztia errespetatzen zuen, kolore edo ideologiari jaramonik egin gabe. Bere hiletajendetsua jendeak zion estimuaren erakustaldi bikaina izan zen. Hutsune handia utzi zigun, baina aldi berean bera gertu izateko eta berarengandik ikasteko zortea izan dugu.

Arrasaten jaio zen, 1935. urteko otsailaren 22an. Hamaika urte bete zituen arte, ezerk ez zuen iragartzen bere bokazioa. Hamaika urte-ekin, berak eta Javier Mendizabalek seminariora joatea erabaki zuten. Kolpea handia izan zen familiarentzat. Nola liteke, sozialista eta errepublikar familia batetik apaiz bat irteeta? Familiaren "aurkako" jarreraren aurrean garaile atera zen bere "burugogorkeria" eta 12 urte zituela Saturrarango Seminariora joan zen. Seminario urteak normalak izan ziren, eta ikasle ona zenez ez zuen ikasketekin inolako arazorik izan.

Seminarioko azken urte-

etan, Teologia ikasten ari zela, osatu zen beranduago Venezuelako misioetara joango zen taldea.

1959. urtean apaiz egin eta denbora gutxira Venezuelara joan zen. Han utzi zuen bere bizitzako onena, 17 urteko lana.

Arrasatera bueltatu eta hasieran noraezean ibili zen. Azkenean, Eskola Politeknikako irakasle lanean zentratu zen, eta gehiago San Andreseko Parrokiako laguntzaile bezala.

Orain urte gutxi erabaki zuen, benetan atsegin zuena apaiz izatea zela, eta irakasle lana utzirik, bete bete hasi zen lanean San Andreseko Parrokian. Edozein izan daitekeen bezain zorionsua izan zen hemen, maite zuten hainbat eta hainbat lagun izan zituen, eta berak maitasun berdinagaz ordaintzen zien. Hori zen Jose Marientzat garrantzitsua, beste bertute batzuren gainetik, oinarrian gizon on bat zela.

On Jose Maria Arizmendiari jentzen idazkien bilketa eta sailkapen lan neke-tsua egin zuen, seminariotik berarekin harreman handia zeukan eta. T.U. aldizkariaren kolaboratzaile izan zen, puntutxo humanoa jarritz.

Gabon kanta eta kanta ugari utzi dizkigu, musika eta letra berak jarrita eta beste letra batzuei ere jarri die hitza. Melomano bat zen, musika entzuteaz gain kantatzea gustatzen zitzaiona. Oso ondo kantatzen zuen.

1994ko urriaren 19an Leintz Bailarako Artzipreste izendatu zuten, hiltzerakoan betetzen zuen kargua.

60 urterekin tesina prestatzeko ilusioa zeukan, Teologian lizentziatura ateratzeko. Ez zen posible izan, 60 urte bete eta berehala joan zen.

Berak, bere ama oroitzekoan idatzita utzi zuen, "Maitasuna ez da itzaltzen.

(I. Kor. 13,8) eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu". Horregatik, Jose Mari, inoiz itzaltzen ez delako betik gurekin egongo zara. Gero arte Jose Mari. Goian Bego.

ARANTZA ALONSO

Zaldibarko II. fasea

Joan den larunbatean, apirilaren 13an, jokatu zen Zaldibarko futbol txapelketako partidu baten arbitrairekin gure ezadostasuna adieraztea da gutun honen helburua. Zehatzago izateko partidu hori goizeko 11etan jokatu zen.

Ez gatoz bat partidu horretan egin zen arbitrairekin, gure iritziz arbitroak ez zituen erabakiak zuzen hartu. Honekin ez dugu esan nahi inoren alde edo aurka egon zenik, bere erabakietatik asko ez zirela egokiak izan baizik.

Ulertzen dugu bigarren fase honetako partiduetako epailea izatea zaila dela sarritan, eta edonork eduki deza keela egun txarra. Hala ere, gustatuko litzaziguke epaile hauek konturatzea zein zaila den bigarren fase honetara heltzea, eta gero hirugarren faserako klasifikatzea, eta nolako eragina izan dezaketen euren erabakiek talde batek irabaz edo gal dezan. Gure ustez hori gertatu zen larunbateko partiduan ere.

Horregatik, medio honen bidez, Zaldibarko lehiaketako arbitro eta antolatzaileei erregutzen diegu saia daitezela erabakiak zuzen hartzen, eta hartutako erabakiak mantentzen, partaideak ilusio handia jartzen baitugu aste-bukaeretan eta asko kostatzen zaigu postu onenetara heltzea.


MSM INGENIERIA
INTEGRAL

Behi zoroen gaisotasunak eragin dizu zerbaitetan?



Milagros Gonzalez Etxekoandrea
(52 urte)

Betiko harategi batean erosten dut okela, eta etiketan jartzen duenez bertakoa da haragia. Beraz, ni trankil nago.



Julen Garcia Langilea
(46 urte)

Ez dit eragin, okela jaten jarraitzen dut. Nik neuk ez dakit jaten dudana haragia nondik ekarriko duten baina emazteak jakingo du, behi zoroen gaisotasunarekin nahiko arduratuta dago-eta.



Angela Anaia Etxekoandrea
(55 urte)

Bai, orain gehiago begiratzen dut erosten dudana okela nondik datorren. Lehen ez nuen hori galdetzen baina orain bai.




Eutimio Gonzalez Langilea
(43 urte)

Gaisotasun horrek ez dit eragin. Ez dit axola nongo haragia jaten dudana.



Maria Dolores Arakistain Etxekoandrea
(59 urte)

Nik betidanik bertako jana erosten dut, beraz trankil nago. Hori bai, esan diot alabari Ingalaterrara doanean okelarik ez jateko.



Mikel Canales Langilea
(35 urte)

Horretaz paso egiten dut. Nik egiten ditut erosketak eta uste dut erosten dudana okela hemengoa dela.



Maria Jose Cabezas Etxekoandrea
(40 urte)

Momentuz behintzat ez. Esaten dutenez hemengo okela oso ona da, beraz ez nago arduratuta.



Asier Bengoa Tabernaria
(25 urte)

Lehen bezala okela jaten jarraitzen dut, eta ez dakit amak erosten duen okela nongo den.



Zure OPEL banatzailea ARRASATEN, zergatik joan urrunago?

OPEL

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 19
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Larunbata 20
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerias.

Igandea 21
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Astlehena 22
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Asteartea 23
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Asteazkena 24
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Osteguna 25
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

19 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Profesor Holland" 7etan eta 10etan.
- **ANTZERKIA HERRIKO PLAZAN**
 Tunantes del Norte taldeak Soo bitxo! lana aurkeztuko du gaueko 10etan Herriko plazan.
- **HITZALDIA ESKORIATZAN**
 Gaia: "San Viatortarrak Eskoriatzara etorri gineneko 75. urteurrena". Hizlaria: Jose M^a Legarreta Bilbao. Arratsaldeko 7.30etan Eskoriatzako kultur etxean.

MAIXA ETA ITZIAR ARRASATE IRRATIAN

Ostirala 19, Maixa eta Itziarren "Uhinez uhin" disko berriaren aurkezpena Sorginak Erretza hartzen duenean musika saioan gaueko 9etan. Larunbatean 20, Zoro klasikoak saioan Juan Garai In memoriam saio berezia goizeko 11etan. Osteguna 25, Txerren dantza saioan EH sukarra taldearen "urasutan" diskoren aurkezpena gaueko 10etan.

SALOI-DANTZA ETA ESKULAN IKASTAROAK

Ekinek antolatuta dantza eta eskularen ikastaroak. Saloi dantza ikastaroa asteartean arratsaldeko 3.30etatik 5etara eta 5.15etatik 6.15etara. Eskulan ikastaroa asteazkenetan arratsaldeko 3.30etatik 5.30etara eta 6etatik 8ak arte. Izena emateko deitu 77 12 28 zenbakira

20 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Babe, el cerdito valiente" 5etan.
 "Casino de Scorsese" 7etan eta 10.15etan.
- **1961eko KINTOEN BAZKARIA**
 Eguerdiko 12.30etan meza San Frantzisko elizan eta 2.30etan bazkaria Amaika Gazte elkartearen.
- **ANTIMILITARISTEN MARTXA**
 Arrasateko talde antimilitaristak martxa antolatu du Martutenera intsumiso presoek elkartasuna adierazteko. Autobusa arratsaldeko 3.30etan Garibaitik. Ekintza Kakitzatek antolatu du Arrasateko talde antimilitaristaren laguntzaz.
- **ALTAMIRAKO JAIK**
 Goizeko 10.30etan dultzainariak. 11.30etan haurjolasak. Ordu batean auzoko tabernaren inaugurazioa. 4.30etan marrazki lehiaketa. 6etan txokolatada. 7etan meza San Frantzisko elizan. 7.15etan buruhandiak eta 8etan Txinparta taldearekin dantzaldia.
- **OMENALDI MEZA**
 Jose Mari Mendizabal abadearen omenez meza San Andresko parrokian arratsaldeko 7etan.
- **ZARTZUELA AMAIA ANTZOKIAN**
 Zartzuela: "Agua, azucarillos y aguardiente" eta "Chaleco blanco". Amaia antzokian gaueko 10etan. Arrasate Musikalek antolatuta Udalaren laguntzaz.

21 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Babe, el cerdito valiente" 5etan.
 "Casino de Scorsese" 7etan eta 10.15etan.
- **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Maltzaga, Altzola, Sasiola, Kalbario Gaina, Mutriku, Deba eta Arrasate. Guztira 80 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterrondik.

PINTURA ERAKUSKETA

Famili eta Gizarte Hezketarako zentruko ikasleek egindako lanen erakusketa Harresi aretoan apirilaren 19tik 28a arte. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunean 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte. Bestalde apirilaren 25ean osteguna Praga eta Budapestera egingo duten bidaiarako informazio bilera izango dute lokalean arratsaldeko 7etan

MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Apirilaren 28rako Mendi irteera antolatu du Besaidek Puerto Lunada eta Las Machorrasera. Irteera goizeko 7etan Garibaitik. Izenematea apirilaren 23, 24 eta 25ean egin daiteke arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.

22 ASTELEHENA

• ZINEA

"Casino" 7etan eta 10.15etan.

23 ASTEARTEA

• ZINEA

"Casino" 7etan eta 10.15etan.

• LIBURUAREN NAZIOARTE-KO EGUNA

Irratsaio berezia Arrasate Irratian nazioarteko liburuaren eguna dela eta goizeko 10.30etan. Antolatzailea Udal liburutegia.

24 ASTEAZKENA


• LIBURUTEGIA AZOKARA

Liburutegiak postu bat jarriko du azokan. Bertan informazioa eman eta bazkide egiteko aukera emango da eta liburuak maileguan etxera eramanez ahal izango dira

25 OSTEGUNA

• ZINE KLUBA

"Hola estas sola?" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.



ERAKUSKETA

M^e Jesus Vazquez-en eskularen erakusketa Monterronen apirilaren 29tik maiatzaren 5a arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

PERKUTSIO IKASTAROA

Astelehenero arratsaldeko 5.15etatik 7.15etara Gaztetxean. Izena emateko bertara zuzendu.

GOITIBEHEREN SAN JUAN SARIA

Ekainaren 23an goizeko 11etan Goitibeheren Lehen San Juan saria burutuko da Arrasaten. Jeitsiera Udalatik Arrasatera. Goitibeherak pneumatikozko gurpilak eraman beharko dituzte baina zehaztasun gehiago jasotzeko deitu 77 12 28 zenbakira edo zuzendu AEDra. Antolatzaileak AED eta Arrasate Kiro-lak.

KULTUR ASTEA SAN VIATORREN

Apirilaren 22an, hitzaldia. Gaia: Gurasook zer egin dezakegu seme alaben irakur zaletasuna bultzatzeko? Hizlaria: Assenet Diez Heriz. Arratsaldeko 6etan. San Viator txikiko mediatekan. Apirilaren 23an Literatur lehiaketaren sari banaketa arratsaldeko 4.30etan San Viator handiko mediatekan. Apirilaren 25a, hitzaldia. Gaia: Nola lagundu gure hurrei telebista ikusteri. Hizlaria: Mikel Usabiaga. Arratsaldeko 6etan San Viator txikiko Mediatekan. Bestalde esan behar da bi erakusketa izango direla ikusgai asteen zehar arratsaldeko 4.30etatik 5.30etara. San Viator handiko mediatekan Pilota eta liburu Zaharrei buruzkoa eta San Viator txikin Ibaialde proiektuko erakusketa. San Viator Txiki eta Handiko ikasleek ekintzaz betetako astea izango dute, besteak beste ilustrazio lehiaketa, kirol txapelketak, hitzaldiak ...

KULTUR ASTEA SAN ANDRES HERRI ESKOLAN

Apirilaren 22an hitzaldia. Gaia: Murgiltze eredua. Hizlaria: Marian Bilbatua. Arratsaldeko 5.30etan. Apirilaren 23an, 3. eta 5. mailako ikasleek gurasoei zuzendutako antzerkia eskeiniko dute arratsaldeko 5.30etan. Ondoren 8. mailako ikasleen Play Back jaialdia. Apirilaren 24an, hitzaldia. Gaia: Erreforma, hezkuntza. Hizlariak: Karlos Uranga eta Koldo Etxeberria. Arratsaldeko 6etan. Apirilaren 25ean, Ikasleek gurasoei zuzendutako antzerkia eta play back jaialdia eskainiko dute arratsaldeko 5.30etatik aurrera. Aipatutako hitzaldi eta antzerkiez gain, San andres Herri eskolako ikasleek mahainguruak, kirol txapelketak, eta bideo emanaldiak ixango dituzte aste honetan.

“Unibertsitate pribatua Deba Garaiah.

Era guztietako onespének eta laguntzak merezi ditu ekimen honek, ene ustez. Bere izaera sozialagatik, ikasketa plangintza egokiak dituelako funtsezko oinarritzat (irakas-kuntza ofizialean ikusteko daudenak) eta hezkuntza zorrotz batek eskatzen dituen arau funtzionalak errazkiago beteko dituelako.

Azken 50 urteotan bildutako esperientzia lagungarri eta arakastarako garantia izango du Unibertsitate Pribatu berriak. Kontuan izan dezagun finantziarioa, laguntza ofizialez eta ikasleen ordainketez gain, MCCren esku izango dela.

Argi dezagun, azkenik, Arrasateko zentruetako ikasleek ez dutela inongo konpromezurik Talde Kooperatiboarekin, nahiz eta askok kontrakorik uste duten. Deba Garaiko ikasleak hirutik bat dira, gutxi asko; ia %40 Gipuzkoako beste inguru batzuetakoak, ia %20 bizkaitarrak eta arabarrak, azkenik, %10 inguru”.

Karmelo Urdangarin, 1996ko apirilak 14.

ARGIA

“Juan Luis Irazola pilota profesionalaren munduan moldeak apurtzen dituen gizona da. Dedikazio osoaren aldeko oihartzunak entzuten ari direnean, berak pilotan egiteaz gain taxista lana egiten du. Urte osoa hirugarren filako bikoteen arteko partiduetan ahaztuta pasa ondoren, indarrean sartzen da lehiaketa erreginean eskuz-eskuko zortzi pilotari onenen artean estilo atipikoa erabiliz, bolea jokoari lehentasuna emanez ohiko bote jokoaren aurrean. Kottela osatzeko zurikeria gabeko adierazpen argiak egiten ditu, burua tente edukitzeko modukoak, baina enpresariaren haserreen ondorioz kalteak dakarkienak. Bitartean, bera frontoira taxian joaten den pilotari bakarra da, bere autoan”.

1996ko apirilak 15.

egin

Zer dela eta zartzuela emanaldia Arrasaten?

Aspaldi zartzuela emanaldi asko izaten zen Arrasaten. Orain dela hogeitabost urte inguru Jesus Guridik, konpositoreak, eta Aranbarri zuzendariak zuzenduta “El Caserio” eta “Mirentxu” zartzuelak izan ziren ikusgai. Zartzuela horietan, gainera, Arrasateko hainbat jendek parte hartu zuen.



Luis Sagasta
Arrasate Musikaleko
lehendakaria

laz moduan aurten ere opera ekarri nahi genuela-eta, hori lortzeko harremanetan jarri ginen. Oraingoan, hala ere, opera ekartzea ezinezkoa zela eta

zartzuela emanaldia antolatzea eskaini ziguten. Lehenago arrakasta izaten zuela eta jende nagusiak pozik ikusiko lukeela pentsatuz, gonbiteari baietza eman genion. Emanaldia zapatuan izango da. Madrilgo Zartzuela Konpañiak eta Ostravako orkestrak bi zartzuela eskainiko dituzte: “Agua, azucarillos y aguardiente” eta “Chaleco Blanco”. Esan, gainera, Arrasateko zazpi mutikok ere parte hartuko dutela. Mutikoen lana eszenan sartu eta zerbait antzeztea izango da. Espero dugu jendea gerturatuko dela zartzuela ikustera.

Zartzuelaren inguruan Arrasate Musikaleko kideok badugu beste asmorik ere. Datorren urtean 25 urte beteko ditu akademiak eta zartzuela bat prestatzea pentsatu dugu. Arrasateko orkestra abesbatza eta orokorrean parte hartu nahi duten guztiekin “El Caserio” zartzuela ezaguna prestatzea da asmoa. Kasu honetan zartzuela euskaraz izango da.

AMI oinetakoak

OINETAKOEN AUTOZERBITZUA
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

“EDERTU”
Ileapaindegia eta Solariuma

San Andres auzoa • Tfnoa: 79 04 28 • ARRASATE

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
FAX: 792941
ARETXABAETA

Parrokiako 3. fasea bukatuta

Zortzi hilabeteko obren ostean, astean bukatutzat eman dituzte San Juan Parrokiaren 3. faseko obrak. Fase horretan atzealdeko horma, Herriko Plazari begira dagoena, eta sakristia konpondu dituzte. 25 milioiko aurrekontua izan duen fasea bukatu ondoren, obrek geldiuena izango dute. Irailean berriz ere konponketa lanekin jarraituko dute, eta orduan barrualdea konpontzen hasiko dira. Barrukoa berritzeko 14 hilabete beharko direla uste da.



“Aizkora” etxea bota dute

Azpian izen bereko taberna zegoelako, “Aizkora” izenez ezagutzen zen etxea bota dute. 1575garren urtean eraikitako etxea Zeziaga familiarena zen, eta orain Hirurok enpresari saldu diote. Eraikuntza enpresak hiru etxebizitza eta salmentarako txokoak egingo ditu bertan.

Sua ezin kontrolatu

Joan den zapatu goizean sua piztu zen Fagor San Andresen parean. Inguruko sasiak erretzeko sua egin zuten lagun batzuk, baina sutea zabaldu eta suhiltzaileek etorri behar izan zuten. Sua kontrolpean zegoela pentsatu eta suhiltzaileek alde egin zuten, baina eguerdi aldera bueltatu eta sua itzali behar izan zuten. Arratsaldeko ordubietarako alde egin zuten, baina sua berriro ere piztu zenez

arratsaldeko bostetan hirugarren aldiz etorri behar izan zuten. Hirugarrenean lortu zuten sua guztiz itzaltzea. Suaren ondorioz sasiak erre ziren batez ere.

EKI animalien alde

Gizakiek animaliek

duten jarrera salatzen erakusketa zabaldu du astean EKI ekologi taldeak. Argazkien bidez, animaliek gizakiengandik jasaten duten sufrimendu fisiko eta psikikoa erakusten da. Horrez gain, historian zehar animaliek gizakiei zenbat lagundu dieten ere ikusten da.

Koldo Ameztoui Eskolan

Biteri Egoitzako Euskara Batzordeak antolatuta, asteartean ipuin emanaldia eskaini zuen Koldo Ameztouk. Ipuin kontalariak jende ugari biltzea lortu zuen, eta ipuinak kontatzeaz gain kanta ezagunak ere kantatu zituen.

JAIOTZAK

- Sergio Rios Casado. Martxoaren 29an.
- Asier Montxola Akizu. Apirilaren 1ean.
- David Mateos Martin. 3an.
- Julen Mendez Azkoaga. 3an.

HILDAKOAK

- Felisa Rezola Arza. Apirilaren 2an. 85 urte.
- Santiago Zabalo Martinez. 2an. 77 urte.
- Magdalena Medrano Bazo. 3an. 88 urte.
- Ramón Zurutuza Zurutuza. 4an. 64 urte.
- Enrique Gruzeta Aspe. 8an. 78 urte.
- Robledo Fuentes Ortega. 9an. 65 urte.
- Tomas Errasti Gorostiza. 9an. 92 urte.
- Joaquina Akizu Astola. 9an. 86 urte.



JUAN GARAI ETXEBESTE

“Ematen ez den guztia, galdu egiten da”

Mila esker, Juan zure prestutasunagatik eta eman diguzun guztiagatik. Eta jarraitu gurekin, zeruan ere Arrasate Irratia sintonizatzen. Muxu bat, guztion partetik.

Arrasate Irratia ■
■
■



IKASTARO BERRIAK


- Lana bilatzeko teknikak
- IRPF eta IVA
- Sukaldaritza eta gozogintza
- Autoestima
- Sexualitatea
- Euskal Dantzak
- Eta abar...

Matrikula zabalik!!

INFORMAZIO GEHIAGORAKO
Tfnoa: 79 04 59



Famili eta Gizarte Hezketa Zentrua



* Eugenio Iturriotz

Aaa... txissss... zelako hazkurea daukadan!

Udaberrian gaude eta urtaro hau oso aproposa izaten da hainbat alergia agerian jartzeko, kontuan izanik udaberrian polen, akaro, ondoak, eta abar ugaltzen dira.

Normalean gure gorputzak arrotz egiten zaizkien substantzien aurrean erreakzionatu egiten du. Hau da, hautsa, kea edo polena dagoenean, normalean denok egiten ditugu estul batzuk edo begietatik malkoak irteten zaizkigu, produktu arrotza ez dadin gure gorputzean sartu.

Alergikoak diren pertsonengan erantzun hau oso indartsua izaten da, desegokia eta ondorioz, kalteak sortzen ditu doministikoak, sudurretako eta begietako jarioa, eztula, txistu-hotsak bronkioetan, arnas-estua, hazkurea, azaleko gorriuneak eta abar.

Alergia sortzen duten alergeno arruntenak etxeke hautsa, akoroak, polenak, ondoak eta abereen ileak

dira. Guztiak umeengan eragin nabariagoa dute, bere gorputz babes-sistemak oraindik ez du-eta ondo eza-gutzen zenbaterainoko kaltegarriak diren hainbat sustantzia. Beste alergenoak, janariak, medikamentuak eta produktu kimikoak edozein adinetan daukate eragina.

Alergiak hainbat organotan ager daitekeenez beraien sintoma kliniko guztiak laburbiltzea zaila egiten da. Hala

.....

“Alergia sortzen duen sustantzia zein den jakiteko gauza garrantzitsuena historia klinikoa (non, noiz, nola sortzen den) ondo egitea da”

ere aipatuko ditut guk ikusten ditugun alergia arrunte-nak:

- Umeengan asma eta katarro alergikoak.

- Larruazaleko alergia, ezagunena urtikaria da. (Asunak ikutzen ditugunean erliebedun mantxak, gorriak, hazkure handia ematen dutenak).

- Nagusiengan kosmetikoek eragindako alergia edo alergia profesionalak, metalengatik (nikela...).

- Botikarenak.

Alergia sortzen duen sustantzia zein den jakiteko gauza garrantzitsuena historia klinikoa (non, noiz, nola sortzen den) ondo egitea da eta alergia ziurtatzeko larruazaleko testak eta odol analisiak egiten dira.

Alergia tratatzeko lehenengo neurria alergenorekin kontaktua ebitatzea da. Etxean alergikoren bat dagoenean gauza asko aldatu beharra dago. Eguraspena edo bentilazioa goizeko lehen orduetan egingo da, haizea oraindik bare dagoela, pole-na etxean sar ez dadin. Gero, leihoak itxita edukitzea komeni da. Umearen logela leku eguzkitsuan jartzea eta bertan ahalik eta altzari gutxien edukitzea gomendatzen da. Hautsa gorde edo pila dezaketen alfonbra, pelutxe edota bestelako traste guztiak kanpora ateratzea da hartu beharreko lehen neurria.

Alergia sortuz gero poma-da edo botika hartzea komeni da, inflamazioa moteltzeko.

Batzuetan txertoak erabiltzen dira kasu konkretuetan, nahiz eta gero eta gutxiago erabili.

* MEDIKUA

USTEAK USTE

MINI OPORRAK

Ordizia, Zumarraga, edo Aretxabaleta non demontre zeuden ez dakien donostiar bat, Aste Santuko oporretan Egiptora joan duk! eta kristoren azaña egin duelakoan zegok!- Horrelaxe esaten zidan lehengoan lagun batek. Eta esandakoak ematen du erreflexioa egiteko.

Askotan sineztezineko leku bat ikusi behar dugulakoan joaten gara gure bizilekutik urrun. Eta azkenean leku guztietan txakurrak oin hutsik. Munduko toki guztiak dituzte erakusteko txokoak, baina baita ezkutatzekoak ere.

Gipuzkoa Donostia delakoan bizi den gure pertsonai horrek, 5 egun aukeratu zituen Afrikara joateko. Ez da marka makala ez. Zure ingurua ezagutu baino lehenago urrutira joan. Eta horrela jende askori entzuten zaio.

Aste Santuko oporrrak bukatu dira eta berriro ere egunkari, aldizkari eta telebistan jo eta fuego hasi dira, bidai hobeak eta merke-agoak agintzen. Eta gu gorputz kontsumitzaileak, hasiko gara udarako aurre-aurreplangintza egiten. Munduari buelta 5 egunetan!

Aste Santuko oporrrak ez dira oporrrak, mini oporrrak dira eta egun horiek gure ingurunea ezagutzeko hartzen baditugu zer moduz? Bertakoa ezagututakoan gero urrutikoa. Nik horrela egin dut. Eskumiñak donostiarrari.

ION ALDANONDO

Zuk eraman... ezinso dugu!



**Eta nahi duzun bezala
ordaintzeko
Txartela eskaintzen
dizugu.
Ez galdu aukera!**

Jose Aranzabal

ELEKTRAGAILUAK

Iturriotz, 15 • Tfnoa: 79 15 16

SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktorea, 2 • Tfnoa: 79 18 92

J.P. eta Traspasos antzerki taldearen eskutik:

PASARELA

AKTORESAK

Ana Elordi

Inma Fdez. de Betoño

Anaia Aldama

Miriam Martin

eta

ELENA ATIENZA arrasatearra

Apirilak 27, (larunbata) • Gaueko 22.30etan • Amaia Antzokian


Sarrera: 800 pta. (Gazte-Txartelarekin: 600 pta.)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ARRASATEKO UDALA



Akei itxi egingo denez, zaborrak nora eraman erabakiko da laster.

Mankomunitatearen aurrekontuak gertu

Batzorde bakoitzak bere proposamena egin ondoren, 96rako prestatu diren aurrekontuak aztergai izango dira Mankomunitateak asteazkenean egingo duen Bilkuran. Aurrekontuak, hala ere, maiatzeko Bilkuran onartuko dira, orain proposamenak egiteko epea egongo da eta.

Asteazkeneko bileran, gainera, aurrekontuak egitean jarraitu diren irizpideen berri emango du lehendakariak. J.M. Loiti, Mankomunitateko lehendakariaren esanetan, "aurrekontuak normalean jarraipen bat izaten dira, baina badaude gai berriak. Aben-

duaren leian AKEI itxi egingo denez, hortik aurrera Diputazioak esaten dien zabortegi batera eraman beharko da zaborra. Hala ere, zaborrari bolumena kendu beharko zaio eta horretarako, transferentzia toki bat egin beharko da inguruan. Gai horretarako partida zuzenduko dugu aurtengo aurrekontuetan".

Horrez gain, 30 emakumerendako lanbide etxea antolatzea pentsatu dute. Etxe horretan hainbat produktu (barazkiak adibidez) ekoizteko aukera izango da, eta ondoren saldu egingo dira. Bestalde, aurten turismorako puntuak jartzeko asmoa ere badago.

Kirola euskaraz jardunaldiak

Deba Bailerako Euskara eta Kirol Zerbitzuen ekimenez, "euskara kirol munduan" gaia aztertuko da Eibarren datorren asteazkenean. Kirola euskaraz kanpainari jarraipena emateko antolatu da, kirolaren eta euskararen arteko harremana aztergai izango duen jardunaldia antolatzeara.

Ekintza horren aurkezpen ekitaldia asteazkenean egin zen Eibarren. Aurkezpenean izan ziren Eibar eta Arrasateko alkateak eta Diputazioako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Xabier Zubizarretak esan zuenez hizkuntza gutxituek jasaten duten eraso handia da, eta horregatik, horrelako ekimenak begi onez ikusten ditu. Bestalde, kirolarien artean euskara zabaltzea bezain garrantzitsua, kirolaz aritzen diren komunikabideek euskara erabiltzea dela adierazi zuten alkateak.

Josune Ariztondok, Euskara sailburuordeak horrelako ekimenak eredugarriak direla azpimarratu zuen, eta antolatzaileei zorianak eman zien.



AKELARRE


Gozotegia

**ORAIN AKELARREN
GOSARIAK GOIZEKO
7.30etatik AURRERA!**

Gure betiko
ohiturei
tinko eutsiz



Txokolatzeko
Pazko
arraultzak



Karapaixoak

Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

Hirukoaren eta gobernu taldearen aurrekontuak aurrez-aurre astelehenean

EAJk, PSE-EEk eta EAK erabakita dute aurtengo diruak zelan banatu. Idazketa gutxi dela bukatu dute baina ostegun goizean oraindik, HBri eta EBari ez zieten dokumentua banatu. Alkateak, hala ere, astelehenerako deitu du aurrekontuak onartzeko plenoa. Beraz, aurrez azalpenik jasotzen ez badute, seguruenik plenoan eskatuko diete gobernu taldeko bi alderdiek oposizikoei puntuz-puntu laguntza bakoitzaren inguruko azalpenak ematea.

Ignacio Jimenoren esanetan, nahiko aurrekontu desberdinak prestatu dituzte eta ez dira emendakinak aurkeztera mugatu.

EAJren, PSE-EEren eta EAren asmoa ohiko lagun-



Astelehenean, arratsaldeko 7etan, egingo da aurrekontuak onartzeko plenoa.

tzetarako dirulaguntzak ez gehitzea da, eta ordez, orube industrialia prestatzeko laguntza handiagoa emango dute. Ignacio Jimeno, PSE-EEko bozeramaleak azaldukoaren arabera, orube industrialera-

ko 120 milioi zuzentzea aurrekusi dute. "Dirutza hori nonbaitetik atera beharra zegoenez, beste laguntza batzuk ezin izan ditugu gehitu, eta kasu batzuetan gutxitu egin ditugu" esan du Jimenok. Herri

Batasunak eta Ezker Batuak prestatutako aurrekontuetan, berriz, garapen ekonomiko eta sozialerako partidan 30 milioiko laguntza ematea jasotzen da. Joseba Ugalde, EBko zinegotziaren esanetan, "ez dago orube industrialia prestatzeko eskari berezirik, beraz hori jakin barik ez dugu beharrezkoa ikusi aparteko dirulaguntzarik zuzentzea. Gainera, badago arrisku bat, Udalak orube industrialia erosi nahi duela ikusten bada, jabedunek orube horien prezioa garestitu dezakete et a".

Hirukoaren aurrekontuetan bestalde, Emakumearen Batzorderako 9 milioi eta erdi zuzentzea proposatzen da; HBk eta EBk aurreikusitakoaren kopuru berdina.

Elena

Bizkaia-Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Altzariak
Diseinua
Apainketa


**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Iazko apirilean hasi ziren liburutegiko datuak informatizatzen.

Monterrongo Liburutegia aldaketen bidean

Udazkenerako Monterrongo liburutegia informatizatuta egongo da. Era horretan liburutegian ordenagailu batzuk kokatuko dira, nahi den liburua bertan dagoen edo gai baten inguruan zein liburu dauden jakiteko. Momentu honetan %70a ordenagailuan sartuta dago, eta liburuez gain bazkideen datuak ere informatizatuko dira.

Aldizkariak eta egunkariak irakurtzeko dagoen gela txiki geratu dela-eta, zerbitzu hori tokiz aldatzeko asmoa ere jakinarazi dute liburutegiko arduradunek. Erakusketa gelan hemeroteca gela antolatzea pentsatu

dute eta obra batzuk egin beharko direnez, aurtengo aurrekontuetan dirulaguntza eskatu dute. Mertxe Perez de Cirizaren, liburutegiko arduradunaren esanetan, "aurrekontuetan liburutegirako zuzentzen den diru kopuruaren arabera jakingo da hemeroteca lekuz aldatu ahal izango den".

Iazko urtearen errepasoa egiteko asteazkenean emandako prentsaurrekoan jakinarazi zenez, gaur egun 6.000 bazkide ditu liburutegiak. Era berean, gero eta liburu gehiago ateratzen dela eta bideotekak arrakasta duela azpimarratu zuten.

Takoloko proiektua atzeratu

Takoloko bidegurutzea konpontzeko zegoen proiektua alde batera utzi du Diputazioak. Bidegurutzea egiteko lanak lehenbailehen hasiko zirela uste bazen ere, horretarako dirurik ez dagoela esanez proiektua atzeratzea erabaki dute. Diputazioaren erabakia jakinda, Arrasateko Udalak hurrengo urteko aurrekontuetan sartzea eskatu dio. Proiektuan Fagor Elektratesnakek dituen lur sail batzuk hartzea aurreikusten denez, Udalak lur sail horiek eskatu eta Fagorrek eman egin ditu.

Iazko udazkenean onartu zen Takoloko bidegurutzea konpontzeko proiektua, eta orduan, 153 milioitan finkatu zen obraren kostua.

Auto elektrikoaren aurkezpena

Astelehenean aurkeztuko da Bilbon Eskola Politeknikoan egin duten auto elektrikoa. Iberdrolak, MCCk, SPRIk eta Eskolak parte hartu dute proiektu honetan.

egizabal

poltsak • oinetakoak

Ferrerias, 9
ARRASATE
T9 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

IBARRA Garajea S.L.




EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Erdiko kale. 79 19 37




Ferrerias. 79 87 62

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...

Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.

Udaberriko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura




Erdiko Kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko
6. ihardunaldia.*
- *Protagonista:
Pedro Roldan*

Ihardunaldi bakarra falta da hirugarren fasea hasteko eta hainbat taldeentzat hil ala bizikoa izango da. Izan ere, bertan lortzen duten emaitzaren arabera sailkatzeko aukera izango dute. Hori dela eta, 7. ihardunaldiko neurketa gehienak erabakiorrak eta ikusteko moduak izango dira. Une honetan zortzi taldek lortu dute hurrengo fasea sailkatzea: A multzoko Argi Ibili, Bko Fosforos eta AC Surcos. Dko Adelaida Haizea, Insert Coin eta Arrasate Kirolak eta E taldeko Totem eta Irati STS. Hauek arnasa lasai hartzeko moduan daude dagoeneko.

Behin bigarren faseko azken ihardunaldia bukatuta talde batzuen artean parekotasuna egongo balitz, antolatzaileek euren arteko emaitza izango dute kontuan eta orduan berdinketak jarraituko balu gol-averagean erabakiko litzateke.



Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibilii	6	6	0	0	33	8	12
Okoretegi	6	3	2	1	22	17	8
Perrahotsa	6	3	1	2	13	21	7
Hirei	6	3	1	2	21	20	7
Kamasutra	6	3	0	3	25	20	6
A ti que te importa	6	1	2	3	20	21	4
Txeyenex	6	2	0	4	11	20	4
Zotz Motz	6	0	0	6	23	45	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Fosforos	6	4	1	1	27	20	9
AC Surcos	6	3	2	1	22	17	8
Cerv leintz	6	3	2	1	23	20	8
Sokoakoak	6	3	1	2	26	18	7
Orlando Piratas	6	3	0	3	24	25	6
Los heredia	6	3	0	3	24	24	6
Nuevo Taberna	6	2	0	4	30	29	4
Lautherbrunnen	6	0	0	6	20	43	0

A Taldea

A ti que te importa 2 - Okoretegi 2
Txeyenex 0 - Kamasutra 1
Argi Ibilii 9 - Perrahotsa 0
Hirei 9 - Zotz Motz 6

B Taldea

Fosforos 3 - AC Surcos 2
Orlando Piratas 6 - Lautherbrunnen 5
Cerv leintz 4 - Sokoakoak 3
Nuevo tab 3 - Los heredia 5

D Taldea

Orrogoi Tab 3 - Arrasate Kirolak 1
Pub people 1 - DKB 0
Adelaida Haizea 3 - Danok Lagun 0
MSm Ing Integral 2 - Insert Coin 4

E Taldea

AurreraBolie 8 - Anbotoste 3
Irati STS 8 - Artzankos Udalaiz 3
Betraye 1 - Trikiti 5
Totem 8 - Sortu Informatika 3

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Adelaida Haizea	6	4	2	0	24	6	10
Insert Coin	6	5	0	1	23	19	10
Arrasate Kirolak	6	2	2	2	23	18	6
MSM Inge Integral	6	3	0	3	20	21	6
Pub People	6	2	2	2	16	19	6
Arrogoi Taber	6	2	1	3	19	21	5
Danok Lagun	6	1	1	4	14	20	3
DKB	6	0	2	4	13	26	2

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Totem	6	5	1	0	35	18	11
Irati STS	6	4	1	1	24	16	9
Trikiti	6	4	0	2	22	12	8
Betrayer	6	3	1	2	24	21	7
Sortu Informatika	6	3	0	3	17	23	6
Aurrera Bolie	6	3	0	3	20	17	6
Artzankos Udalaiz	6	0	1	5	14	27	1
Anbotoste	6	0	0	6	13	35	0

Hurrengo partiduak

Larunbata 20 Zaldibar

9.50 Lautherbrunnen - AC Surcos
11.00 Zotz Motz - Perrahotsa
12.00 Aurrera Bolie - Irati STS
13.00 Arrogoi Taberna - Pub People
14.00 Insert Coin - Danok Lagun

15.00 Cerveceria Leintz - Nuevo taberna
16.00 Betrayer - Totem
17.00 Los heredia - Sokoakoak
18.00 Fosforos - Orlando Piratas
19.00 Argi Ibilii - Hirei

Igandea 21 Zaldibar

9.50 Kamasutra - Okoretegi Taberna
11.00 Adelaida Haizea - MSM Inge Integral
12.00 Sortu Informatika - Trikiti
13.00 Artzankos Udalaiz - Anbotoste

Txeyenex eta DKB txapelketatik kanpo

Ez da ihardunaldi lasaia izan asteburu honetan Zaldibarren jokatu dena. Bi talde txapelketatik kanpo geratu dira eta zigorra jaso duen jokalaririk ere izan da. Txeyenex eta Kamasutra taldeen arteko norgehiagokan Aizkora epaileak hiru jokalaririk partidu osorako bota zituen kalera gogorkeri handiarekin jokatzen ari zirelako, Txeyenex taldeko Gaizka Aranegi eta Zigor Vega eta Kamasutrako Juan Carlos Prieto. Bigarren faseko arauak diotenaren arabera talde bateko bi jokalaririk partidu osorako kanporatzen badira, taldeak ez du aurrera jarraitzeko aukerarik. Beraz Txeyenex kanpoan dago dagoeneko.

Bestalde DKB taldeak zapatuan neurtu behar



zituen indarrak Pub Peoplen kontra baina jokalaririk nahastu eta domekan zelakoan ez ziren aurkeztu. Ez aurkeztearren hauek ere kalean daude, horrelako despisteak arriskutsuak izaten dira eta horren lekuko DKB taldeari gertatutakoa.

Eneko Girado Sokoakoak taldekoa ostera txapelketatik kanpo dago baina ez antolatzaileen erabakiz. Izan ere, Enekok izugarritzko kolpea hartu zuen belaunean eta anbulantzia hospitalera eraman behar izan zuten, hori dela eta txapelketa ordu erdian geratuta egon zen. Jakin izan dugunez lesio gogorra du belaunean eta hilabete batzutan ezingo du futbitoan jokatu, animo Eneko!

Arazo hauez gain, normaltasuna izan da ezauzgarri orokorra 6. ihardunaldian eta sorpresa handirik ere ez da egon emaitzetan.

Protagonista

Pedro Roldan
(Nuevo taberna)

— Nola daramazue bigarren fasea?

— Los Herediaren kontran galdu egin dugunez oso zaila jarri zaigu hurrengo fasera sailkatzeko aukera. Dagoeneko ia ezinezkoa. Neurketa aurretik itxaropentsu geunden baina aurrera egiteko nahi eta nahiez irabazi behar genuen eta ez da hori gertatu.

— Multzo sendoa tokatu zaizue?

— Oso gogorra, parekotasun handia dago taldeen artean eta edonork lor dezake hirugarren fasera sailkatzeko txartela.



Multzoko liderra Fosforos da eta 9 puntu ditu baina bere atzean daudenek 8 eta 7 dituzte beraz ia azken ihardunaldira arte ez da jakingo sailkatutako taldeak zeintzuk diren.

— Tentsio handia egon da neurketetan?

— Guztiok irabazteko gogoz kantxarutzen gara eta normala da tentsio apur bat izatea. Dena dela joku zakarra ez da ikusi eta hori garrantzitsua da, kiroltasunez jokatu dugun adierazgarri da eta.

— Talde favoritorik?

— Favoritorik ez baina oso indartsu eta sendo Adelaida Haizea ikusten dut. Egia esateko txapelketako talde konpletoena dela uste dut eta gaur arte hori ari da erakusten.

— Zein final ikustea gustatuko litzaizuke?

— Nuevo taberna eta Adelaida Haizea. Tamalez hori ez da posible izango baina tira!

Labur

■ **EPAILEAK**

Bigarren faseko azken ihardunaldian Aizkora, Canacho, Perez, Haritz eta antolakuntzako hainbat partaideek bete-ko dituzte epaile lanak. Astebururo astebururo bezala musu truk eta borondate onenarekin ahalik eta lan onena betetzen saiatuko dira talde askontzat hain erabakiorra izango den ihardunaldian.

■ **PARTIDU INTESGARRIAK**

Zapatu eta domeka bitartean 14 partiduko dira Zaldibarren eta gehienak erabakiorrak izango direla esan behar.

Uribe Auzko Futbito Txapelketa

Golak izan dira protagonista Uribe Auzoa txapelketan. guztira 262 sartu dira eta multzo golegileena F izan da 60 lortuz. Taldeei dagokienez Nuevo taberna 14 golekin atera begira ihardunaldiko trebeba izan da eta makalena gol barik Kamasutra izan da. Bestalde esan behar da Nahiz ta gure taldea ez zela partidura aurkeztu eta kalean dagoela.

URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK

Larunbata 20

Iturripe A

- 10.00 Hirei - Zutarri
- 11.00 Cartonajes Igamo - Betrayer
- 12.00 Los Urracas - Patxi eta Txapi
- 13.00 High Society - Ganbelas
- 14.00 Killer Barbies - Egocentricos
- 15.00 The Barrio - Kamasutra P
- 16.00 Beluga - Balon Rojo
- 17.00 Decima Vict. - Manchester Fum.
- 18.00 Tandem - Gallinero
- 19.00 Nuevo taberna - Eighth

Iturripe B

- 12.00 Lautherbrunnen - Tropikana
- 13.00 PasteleriaPapur - Zipote Nukleico
- 14.00 Ganba Al Whisky - Elisabeth
- 15.00 Bortxitxak - power Rangers
- 16.00 Amo Katxis - Ale Alee

- 17.00 Diego Antonio - Mikel Lasa Seg
- 18.00 Racing Molotov - Blind
- 19.00 Interlaken - Uglys Txinato

Igandea 21

Iturripe A

- 9.00 Pobres Ranggers - Rayo Batikano
- 10.00 Borrock Roll - Koka Juniors
- 11.00 La musica Gao - Creature Feature
- 12.00 Zigarrolak Mutil. - Jaleo Bila
- 13.00 Munar Txiki - Baneuko

Iturripe B

- 9.00 Cheer Readers - Arsenal
- 10.00 Dribling - Leya
- 11.00 Borrock Roll P - Zurt
- 12.00 Potrosorri - Malpikas
- 13.00 Pier Nodoiuna - Euskal Supporters

Uribe auzoko sailkapena

A taldea

- Zutarri9
- Hirei8
- Kamasutra Prom7
- Patxi eta Txapi7
- The Barrio6
- Killer Barbies4
- Creature Feature4
- Los Urracas4
- Egocentricos4
- La mosca Gao3
- Zipote Nukleico2
- Pasteleria Papur0

B taldea

- Nuevo tab10
- Eight9
- Pobres Rangers8
- Deciuma Vistima6
- Ganba Al whisky5
- Ale Alee4
- Elisabeth4
- Amo Katxis4
- Arrasate Zoo4
- Kamasutra4
- Rayo Batikano2
- Manchester Fumaited 0

D taldea

- Diego Antonio8
- Betrayer8
- Carto Igamo7
- Zigarrolak Mutil.7
- Bortxitxak6
- Power Rangers6
- Jaleo Bila6
- Borrock Roll Pro4
- Gallinero3
- Tandem2
- Zurt2
- Mikel Lasa Aseg0

E taldea

- Balon Rojo8
- Racing Molotov8
- Beluga7
- Joseba Konte7
- Koka Juniors6
- Nahiz ta Gure6
- Ganbelas4
- Borrock Roll4
- High Society3
- Euskal Supporters ...3
- Blind2
- Pier Nodoiuna0

F taldea

- Dribling10
- Uglys Txinato10
- Malpikas8
- Leya6
- Potrosorri6
- Tropikana6
- Munar txiki4
- Baneuko4
- Cheer Readers2
- Interlaken2
- Lautherbrunnen2
- Arsenal DHD0




Giro onean eta eguraldia lagun AEDko lagunek **Hiru Handiak hiru egunetan** igo zituzten asteburuan. Mendizale sutsu moduan eta ia izerdirik bota gabe Gorbea, Aizkorri eta Anbotoko tontorrek primeran igo zituzten AEDkoek. Urtero egiten den irteera bada ere, gero eta arrakasta handiagoa du eta bertara joandako guztiak datorren urtean errepikatzeko asmoarekin itzuli direla esan behar.




Arrasateko Institutuko 3. mailako 33 ikasle Holandan izan dira Aste Santuan. Zapatuan autobusez abiatu ziren Amsterdanerantz baina bertara heldu baino lehen, Parisen igaro zuten bi egun.

Bertan Eurodisney ezagutzeko aukera izan zuten eta umeen pare ibili zirela jakin izan dugu. Hortik Amsterdanera joan eta lau egun pasa zituzten. Zalantza barik ikas bidai ahaztezina!



Izaskun Urkiola eta Fernando Retegi arrasatearrak martxoaren 23an ezkondu ziren Dorletako santutegian. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean izan zuten. Ezkon bidaian Andaluzian izan dira baina abuztuan Ameriketara joateko asmoa dute. Zorionak bikote!

URRATS
AHOLKULARITZA
 GARIBAI, 3
 Tfnoa: 79 87 74
 ARRASATE

 **Leber Tapizariak**

- Altzari klasiko eta modernoa
- Konponketa eta tapizatuak
- Tapizagintza orokorrean

TAILERRA: Urteaga kalea, 6 behe. Tfnoa: 76 50 37 • BERGARA
 HELBIDEA: Olarte kalea, 16. Tfnoa: 79 01 18 • ARRASATE

ZUBIZARRETA
TAILERRAK
 Gipuzkoa Etorbidea, 22
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 15 65

Do dia da Galizia eguna ospatu zuten Arrasateko galiziarrek ostiraletik domekara. Olagarroa, ribeiroa, enpanadak eta Santiagoko opilak ez ziren falta izan galiziarrentzat hain berezia izan zen egunean. 5. urteurrenean bertako jaki tipikoak dastatzeko aukera izateaz gain, musika eta dantza emanaldiak egon ziren ikusgai.



IZEN PROPIOAK

● **Goio Eskibel** abadea Espainiako San Viatorreko buru izendatu dute. Goio jaiotzez nafarra da baina txiki txikitatik Eskoriatzara joan zen bizi izatera. Azken urteetan Eskoriatzako Gorosarri abesbatzako zuzendaria izan da. Datuzen lau urtetan berriz, Estatuko San viatorreko fraileak zuzentzeko ardura izango du eta lan horrek eskatuta seguruenara Madrilera joan beharko da.

● Fagor Elektragailuak hozkailuak egiten hasiko da Argentinan. Mclean enpresarekin dagoeneko itxi du akordioa eta Fagor kooperatibako **Jose M^a Ortubay Arana** eta **Xabier Koskorrotza Laka** arduratuko dira proiektua aurrera ateratzen.

Aste Santuan Arrasateko 10 eta 11 urte arteko 15 jokalarieron izan dira Nazioarteko Futbol Txapelketa batean parte hartzen.

Construcciones Canas Esteban taldeko jokalariek bigarren postua eskuratu zuten.

Hainbat taldeen artean onenetarikoak izan dira Arrasateko ordezkariak beraz, zoriontzeko arrazoirik badugu. Gainera kiroltasunaren saria ere jaso dute.



**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74

BANKINTER

A G E N T E A

Lor itzazu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretik batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorriaz aprobetxa dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren araberrako aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

Arrasateko biztanleriaren bilakaera

Maria Agirre

Gero eta ume gutxiago, gero eta zahar gehiago eta biztanleriaren beherakada. Horrela labur daiteke Arrasateko demografiak azken urteetan izan duen bilakaera.

2000garren urteari begira egin diren aurreikuspenen arabera, gainera, datozen urteetan gehiago nabarmenduko da joera hori.

BIZTANLERIAREN GORABEHERRAK

1900garren urtetik aurrera Arrasateko biztanleriak gorako bidea hartu zuen. Igoera apurka-apurka gertatu bazen ere, batez ere 60. hamarkadan gehitu zen biztanle kopurua. Lana aurkitzea erraza zela-eta, 1960-70 urteen artean 7.000 lagun etorri ziren Arrasatera bizi izatera. Azken hamarkadetako bilakaera honakoa izan da:

Urtea	Biztanl.
1900	3.273
1910	4.296
1920	5.199
1930	6.909
1940	8.834
1950	10.134
1960	14.107
1970	21.066
1980	25.344

1980-90 hamarkadan gorako joera geratu egin zen baina biztanleriari eutsi eta 26.000 biztanle izateraino heldu zen. 90etik aurrera, berriz, joera aldatu egin da eta behera egin du biztanleriak. Urtero 200 lagun inguru galtzen ditu Arrasatek. Iaz, adibidez, 283 lagun galdu zituen eta ondorioz, 96aren hasieran 24.501 biztanle zeuden Arrasaten. Iaz 158 haur jaio zen

herrian eta 214 lagun etorri ziren bizi izatera, baina bestalde, 167 hil eta 477k alde egin zuten.

Ikusten denez, emigrazioa da biztanleriaren beherakada eragiten ari den arrazoi nagusia. Baina zergatik aldegiten du jendeak Arrasatetik? Ez da erraza galdera horri erantzutea baina arrazoi batzuk antzeman daitezke.

Jose Mari Balanzategik, "Aizkorak", Udaletxeko lehiatilan egiten du lan eta berarengana jotzen dute Arrasateko erroldan alta edo baja eman nahi dutenek. Aizkora-aren esanetan, emigrazioa da azken urteetako joera. "Denbora batean etorri ziren etorkinak orain joaten ari dira. Jubilatuta daudelako edo seme-alabek lana aurkitzen ez dutelako erabakitzen dute jaioterrira bueltatzea. Batez ere lana aurkitzea zaila delako erabakitzen dute aldegittea".

Saso batean Arrasaten etxe gutxi egin zela-eta, jendea inguruko herrietara joan zela esan izan da. Aizkorak gogoratzen du orain dela hamar urte Aretxabaleta,



Herrialde aurreratuetan gertatu den biztanleriaren e...

Eskoriatza edo Gasteiza joaten zela jendea etxea han erosi zutelako. Etxe gutxi egiteak biztanlerian eragina izan dezakeela onartzen du Juan Antonio Urdangarinnek, Udaleko Hirigintza teknikariak ere. "Gorostizako etxeak egin zirenetik, Roneo eta Larreakoak egin arte oso etxe gutxi eraiki zen Arrasaten eta jendeak inguruko herrietan erosi zuen etxebizitza". Urdangarinen berbetan Arrasaten bada etxebizitza eskaria, "etxe berriak eraikitzeko promozioak egiten direnean, behintzat, jende askok ematen du izena. Azkenaldian, gainera, eraiki dira etxebizitzak eta horrek beharbada eragin dezake biztanleriaren igoera txiki bat. Kon-

txi Malet, soziologoaren ustez ere, "inguruan etxebizitza merkeak egiteak jendea erakarri du toki horietara, batez ere ezkonberriak".

Etxebizitzaren kontua dela eta hainbat biztanle inguruko herrietara joan dela esan badaiteke ere, ezin esan asko izan direnik. Izan ere, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere behera egin du biztanle kopuruak.

HILKORTASUNAK GORA, JAIOTZAK BEHERA

Herrialde aurreratuenean gertatu izan den bezala biztanleriaren zahartze prozesu etengabea murgiltzen ari da Arrasate, eta era berean jaiotze tasa txikitzen ari da. Azken urteetako datuak bi joeren isla dira.



Apurka-apurka adinekoen kopurua gora egiten ari da.



...tzen ere behera egin du jaiotze tasak.

	Jaio	Hil
1982	334	140
1984	285	165
1986	247	159
1988	227	199
1990	179	189
1992	165	175
1994	153	189

AURREIKUSPENEK ZER DIOTE?

Eustaten azken ikerketen arabera, azken urteotako joera hautsi eta hemendik aurrera gora egingo du jaiotza kopuruak. Gainera, heriotza eta jaiotzen arteko desberdintasuna gutxitu eta jaiotza gehiago izango direla jakinarazi dute. Duda barik, aurreikuspen baikorra egin du estatistika erakundeak.

Arrasateko Udalak ere egin zuen bere ikerketa aurre-

ra begira. Hirigintzako Plan Orokorra idazteko orain dela bi urte egin zen azterlanean datozen urteetarako joera jasotzen da. Kontxi Malet, ikerketa egin zuen arduradunetarikoa batek azaldu duenez, beti moduan hiru hipotesi egin zituzten: bata baikorra, bestea ezkorra eta azkena Arrasatek biztanleriari eutsiko diola esaten duena. Bakoitzaren arabera kopuruak honako hauek lirateke:

koen kopuruak gora egingo du. Horrela bada, 1991n %10,88 ziren 65 urtetik gorakoak; 96an %13,01; 2000garrenean %15,53 izango direla espero da eta 2004garrenean %17,61.

Beharbada askotxo esatea da, baina horrela jarraituz gero Arrasateko kaleak adineko jendez beteko dira. Honen aurrean honako galdera egitera ausar gaitzeko: gure herriak prestatuta al dau-

	Ezkorra	Egonkorra	Baikorra
1996	24.669	25.035	25.472
2000	24.158	25.003	26.033
2004	23.657	24.971	26.606

96aren hasieran Arrasatek 24.501 biztanle zituela kontuan izanik, aurreikuspen ezkorra ere motz geratu da. Ikusi egin behar datozen urteetako joera zein izango den. Hori bai, Hirigintzako Plan Orokorrean jasotzen denez, umeenak behera eta adine-

de adineko lagunendako? Kontxi Maleten ustez, gaur egun oso zerbitzu gutxi dago zaharrendako. "Horregatik, garai batean umezaintzak zabaldu behar izan ziren moduan, aurrerantzean geriatricoak antolatuta beharko dira".

Rugby taldeak Euskal Ligako txartela lortu du

Arrasateko Rugby taldeak Euskal Ligara igotzeko txartela lortu du dagoeneko. Zapatuan Arratiako Zeko- rren kontra neurtu zituzten indarrak eta Patxi Gorosabelek zuzentzen duen taldea 23 eta 15 nagusitu zen. Garai- pen horrek Euskal Ligako ate- ak zabaldu dizkio Arrasate- ko taldeari eta oraindik igo- erako play offa bukatzeko bi neurketa falta diren arren, lasai egoteko moduan dau- de etxeko rugby jokalaria- rik. Beraz, denboraldi hasierako helburua ondo bete dela esan daiteke. Rugby-riek Gipuz- koako Ligan hasi zuten den- boraldia Euskal Ligara igo- tzeko ilusioarekin. Hasiera- tik lortutako emaitzak kon- tuan hartuta euren asmoa gauzatzeko gai izango zire- la zirudien. Denboraldi ona egin eta gero, igoerako play offera sartu ziren eta bertan jokaturako lau neurketak ira- bazi dituzte aurkariak baino maila hobea erakutsiz. Orain beste bi ihardunaldi falta zaizkie aurtengoari agur esa- teko, Mungia eta Bilbo B tal-



Euskal Ligara igotzea lortu dute arrasaterarrek.

deen kontrakoak hain zuzen ere. Norgehiagoka horiek arrasatearrentzat tramite hu- tsadira eta irabazteko asmoz zelairatuko badira ere, euren joku onena erakus- teko aukera izango dute. Mungiaren kontrako parti- dua datorren zapatuan joka-

tuko da arratsaldeko 4etan Mungian eta Bilbo B Arra- satera etorriko da bisitari apirilaren 27an. Orduan Arrasatek eta Bilbo Bk elka- rren kontra neurtuko dituz- te indarrak arratsaldeko 4.30etan Garagartzako zelaian .

LABURRAK

Mondrak ez ditu aukera guztiak galdu

3. mailako Mondrak azken bi asteburutan lortuta- ko garaipenei esker oraindik ez ditu aukerak galdu 3. mai- lan jarraitzeko. Zivojevicen mutilak sailkapeneko 18. pos- tuan daude 33 punturekin. Euren aurretik 36 punturekin Santurtzi dago. Une honetan bost neurketa falta zaizkio Mondrari denboraldia buka- tzeko. Domekan azken sail- katuaren bisita jasoko dute Atxabalpen arratsaldeko 4.30etan. Juventusek 3 neur- keta irabazi eta 23 galdu ditu. Mondrak aukera paregabea izango du beste hiru puntu sailkapenera igotzeko.

Emakumeak lidergoaren bila

Elgoibar eta Mondra izan- go dira nor baino nor zapa- tuan arratsaldeko 4etan Min- txetako futbol zelaian. Lehen postua dago jokuan. Beraz irabazten duen taldeak mul- tzoko liderra izateko eta aldi berean txapelketa eskuratze- ko aukera izango du.


Aldatz gora kanporaketa Urbina Maltzagarentzat

Urbina Maltzaga eta Askatuak izan ziren aurrez aurre kanporaketako lehen partiduan Iturripen. Sama- niegok talde sendoena kan- txaratu zuen Donostiarrei aurre egiteko, Carlus Groves amerikarra barne baina etxeko jokalariek ez zuten mailarik erakutsi eta galdu egin zuten 65 eta 76. Emaitza ez da ona Arrasateko tal- dearentzat eta gainera biga-

rren neurketan Carlus Groves jokalarierabakiorrena ez dela izango kontuan hartuta, kanporaketa beltz jarri zaiola esan daiteke. Biga- rren partidua ostiralean ilun- tzeko 8etan jokatu da Donostiako Josean Gaska kiroldegian. Orduan Urbina Maltzagak irabaziko balu berdinketa hausteko hiru- garren partidu bat jokatu- kitzateke, Donostian hau ere.

Samaniego entrenatzaileak esan duenez garaipenaren bila kantxaratuko dira eta Carlus Groves ez badago ere, ziur da neurketa ira- bazteko gainontzeko joka- lariai saskibaloia onena egi- ten saiatuko direla. Josean Aldalur Donostiako entre- natzaileak berriz, jakin bada- ki lortutako lehen garaipe- narekin gero eta gertuago duela kanporaketa eskura-

tzeko aukera. Dena dela, ezin direla fidatu esan du eta partidua jokatu arte ez dela emaitza esatera ausartzen. Itxura baten play offa Donostian geratuko dela iruditu arren, oraindik Urbina Maltzagak ate guztiak zabalik ditu eta mailaz igo edota txapelketan aurrera egin nahi badu, garaipena da lor dezakeen emaitza bakarra.



A! A! A!
 Eskola bukatu da!
 E! E! E!
 Oporrak nahi nituzke!
 I! I! I!
 Hau da Txatxilipurdi!
 O! O! O!
 Jolas egin jan da lo!
 U! U! U!
 Ezingo duzu ahaztu!

Matrikula zabalik!



Tfnoa: 79 54 46

T
X
A
T
X
I
L
I
P
U
R
D
I

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROSZTEGIA

Leiho termoakustikoak • Ateak
 Horma armairuak • Altzariak



ALTZARI ERRUSTIKOAK



San Juan, 1 (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxa: 76 54 91



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

OTORRINOLARINGOLOGIA

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea	☎79 20 18
--	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
---	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea	☎79 20 18
---	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....	☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
--	-----------

● *Jesus Mari Galparsoro* **“Etorkizun zaila dute palestinarrak”**

Jesus Mari Galparsoro ordiziarra, Aste Santuaren aurretik Arrasaten egon zen Askapenaren eskutik Palestinari buruzko hitzaldi bat emanen. Palestinarren arazoa ezagutarazteko historia apur bat egin zuen hitzaldian, gaur egungo egoeraren agerpenarekin batera.

-Komunikabideetan Palestina aipatzen denean antzerako irudiak jartzen dira betik, armadun jendea, istiluak etab. Errealitatea horrelakoa da?

- Neurri batean bai. Hara iristea kristoren txokea da, zibilezko jende mordoak ikusten da eta armak bizkarrean dituela, batez ere Jerusalemgo ekialdean, Hebron inguruan....

- Posible da horrela bizitzea?

- Jendea ohituta dago, izan ere 40 urte baino gehiago dira egoera horretan.

- Intifadaz zerbait geratzen da?

- Ez, bukatu zen. Intifadak berak bazuen araudi antzeko bat, juduen edo yankien produkturik ez kontsumitzea esaterako, baina gu han egon ginenean, 1994ean, jendeak


Winston erretzen zuen, Coca Cola edan....

- Palestinaz hitzegiterakotan, asko aipatzen dira bake-akordioak, nola gauzatu ziren?

- Pertsonalki pentsatzen dut bake-akordio horiek batez ere ekonomikoak direla. Akordio horien arabera Israelek merkatu bat irekitzen dio mundu arabiarrari, era horretan arabiarren batasuna apurtzea lortuz, nahiz eta ezinezkoa den jakitea arabiarren batasun hori zenbateraino izan den batasun. Kontua da israeldarrak negoziaketetan hasten direla eta hortik dator OLPko ezkerren desegitea eta Hamas bezalako taldeen berpiztea, horrek palestinarren etorkizunarentzat dakarren ondorio txarrekin.

- Fanatismoaz betetako herria erakusten dute komunikabideek.

- Kontuan hartu behar da hangoa beste kultura bat dela, hemengoarekin zerikusirik ez duena. Gu baino askoz ere solidarioagoak dira, hori argi dago eta gainera badirudi zerbait berria dela kamikazeen kontua, baina 1980. urteen inguruan fundamentalista kristauek esaterako jokatu zuten era horretan ere. Normala da hemengo jendeak



horrelakoak ikusita nolabait atzera egitea, baina funtseskoena da askatasun nazional klabe mugitzen direla han.

- Arafat berari nola begiratzeko zaio?

- Ukaezina da karisma handiko gizona dela eta horregatik jarraitzaile ugari izaten jarraitzen du, ez da alferrik OLPko liderra, baina nik uste bereiztu beharra dagoela, militantzia maila bat dutenen artean eta ez dutenen artean. Lehenengoan artean gu han geundela “Bagdag-eko lapurra” deitzen zioten.

- Inguru hartako zenbait tokitan lortu dute autonomia maila bat. Hala ere, oraindik independentzian amesten jarraituko dute, ezta?

- Aurrez, arazo soziala ere hor dago. Intifada indarrean

zegoela, hor egon zen hainbat planteiamendu: beloaren historia, gizonezko eta emakumezkoak elkarrekin joan ezina... eta herriak, Intifadan antolatuta zegoenez, aurre egin zion. Gaur egun hori guztia geratuta dago.

Bestalde ez dut uste Israeldarrek sekula aldegingo dutenik bertatik. Akaso Gazatik joango dira, ez zaie interesatzen eta: produktiorik gabeko toki bat da, ez du aparteko arazo erlijiosorik edo historikorik, 1967an Egiptori lapurtu zioten... aterako dira bai. Cisjordaniatz berriz, normalean lurralde bat balitz bezala hitzegiten da, baina benetan asentamenduz inguratutako kantonamendun lurraldea da, eta akordioetan besterik esaten bada ere, asentamenduak egiten ari dira oraindik. Ondorioz herri eta hiri palestinarrek ez dute garpenerako aukerarik, inguratuta daude eta. Etorkizunari begira hau oso larria da, noizbait autodeterminazioa lortuta ere palestinarrei ez zaie lurraldetasunik geratuko eta.

● “...hortik dator OLPko ezkerren desegitea eta Hamas bezalako taldeen berpiztea, horrek palestinarren etorkizunarentzat dakarrenarekin”

“Soo bitxo”, Tunantes del Norte taldearen lan berria

Hiesa-ren “Bitxoari”

1 987an Gaztetxe zahar-
rean antolatu ziren
antzerki tailer bat-
zuen ondorioz jaio zen
Tunantes Del Norte taldea.
“Es que estamos hartas”
izan zen euren lehen lana.
Gaur berriz, “Soo Bitxo”
antzezlanaren estreinatuko dute
Herriko Plazan. Tragiko-
media honek Kermi, Ion
Salaberrri eta Iñaki Ortiz
omentzen ditu eta HIES gai-
xotasunaren inguruan gizar-
teak sortu dituen mamuak
uxatzeko helburuaz egina
dago. Taldekideek esaten
duten moduan, “antzezlanaren
HIES gaixoei egiten diegun
keinu bat da”.

— Taldeak, Kermigatik, oso gertutik bizi izan du HIESaren gaitza. Berezia izango da antzezlan hau zuzentzat, ezta?

— Ruben: Beti izan dugu gai honekin antzezlan bat egiteko gogoia baina gauza bategatik edo besteagatik, sekula ez genuen ezer borobiltzen. Gainera, gaia ondo ez enfokatzeko kezka genuen, beldur antzeko bat. Kermi zegoela egin nahi izan genuen antzezlan eta azkenean, bera joan izanak bultzatu gaitu obra egitera, nahiz eta Hies-Ekimenak eskatuta egin. Jakina, berezia bada eta gainera Kermi, fisikoki ez bada ere, obran agertzen da.

— Zein paper betetzen du Kermik obran?

— Ander: Obra aurrera doan heinean eta gaixoa ospitalean dagoela, megafoniatik ohiko mezuak entzuten dira. Hasierako ohiko mezuak HIES gaixoen testimonio bihurtzen dire. Eta obraren

azken zatian, Iñaki Telleriak idatzi duen zatian hain zuzen, Kermiren hitzak entzuten dira eta gainera bere diapositibak proiektatzen ditugu.

— HIES gaixoen testimonioak entzuteak lagundu zizuten?

— Ruben: Kermiren hitzek asko lagundu ziguten, azkenean, berak inork baino hobeto ezagutzen zuen gaixotasuna edo “bitxoa” eta berak bazekien zelan tratatu. Beraz, testimonioak oinarritzat hartuz, obra sortzen hasi ginen eta hasierako beldurrak joan egin zitzaizkigun.

— HIESaren eta HIES gaixoen aurka dagoen diskriminazioa salatzen du “Soo bitxo” antzezlanak?

— Alberto: HIESa txarra da benetan baina txarra goa da gizarteko talde batzuk gaixoei eta gaixotasunarekiko duten jarrera diskriminatzailea. Batzuk oso intoleranteak dira eta hori salatu egiten dugu gure lanean.

— “Soo bitxo” antzezlanaren parodia bat da, baina badu bere alde dramatikoak, ez?

— Ander: Bai, eta gainera ziur nago HIESa duen jendeak ez duenak baino hobeto ulertuko duela. Gaixoak horrenbestetan joaten dira ospitalera ingresatzera obrarekin identifikatuta sentituko direla. Horrela esanda tristea da baina guk umorea bota diogu errealitate horri.


— Ruben: Gaixoaren ikuspuntutik dago egina. Ospitalera doan gaixoaren ametsgaiztoarekin jokatu dugu lan honetan. Alde dramatikoak bigarren zatia hasten da

gauzak gordin esanez.


— Alberto: Istorio konfliktibo bat ere bada. Obraren gaixotasunak duen pisua arintzen ahalegindu bagara ere, egoera konfliktiboak ematen dira eta norbait gaizki sentitu daiteke.

— Denbora asko zeneramaten Arrasaten obra berri batekin agertu barik. Denbora horretan eman da aldaketarik taldean?

— Alberto: Estiloa aldatu dugula esango nuke. Jendea harritu egin da obraren kartelarekin, neska txiki bat agertzen da eta. Lehen kartel errebindikatiboagoak egiten genituen eta obra honetarako, beste edozein errekurtsu erabili ahal izan genuen kartelean. Azkenean umea sartzea erabaki



Ander Santiago
Erizaina, Aita Jose, Bitxoa.



Alberto Encinas
Hemorragio Agudogoitia (gaixoa).

genuen testimonio batean oinarrituz. Zera esan zuen gaixo batek behin: “Ez dut barkatuko hurrengo belaunaldiek gu bizi izaten ari garena bizitzea”. Ume hori bizi dadin “bitxo” hori eta jendearen jarrera intolerantea geratu behar ditugula isladatu nahi dugu.

— Ruben: HIESarekin beti lotzen diren irudiak alde

batera utzi nahi izan ditugu. HIES hitzaren ondoan pertsona gaixo bat edo lazo gorria agertzen da beti. Kasu honetan, guk etorkizunaren aldeko apostua isladatu nahi izan dugu kartelean.

— Kale-antzerkia egiten jarraitzen duzue.

— Ander: Bai, eta beti

barre eragiten



jarraituko dugu. Askoz harreman zuzenagoa da eta jendeak errekurso asko ematen digu. Asko inprobisatu behar da eta hori gustoko dugu.

— **Ruben:** Lana leku itxi batean egiteko aukera emango baligute, kale-antzerkiarekin jarraituko genuke, deitzen gaituen jendea mugimendu alternatiboetakoa delako.

— **Antzezlan berriak 13 paper ditu, nola konpontzen zarete, bost lagun izanda?**

— **Ander:** Erropaz gehien aldatzen dena ni naiz, hiru pertsonaia desberdin ditut eta. Eszenatokiaren atzean bi neska daude makilaiarekin eta arropak aldatzen laguntzeko.


— **Ruben:** Beste antzezlan batzutan batzuk bost paper

desberdin izan ditugu, beraz, errekursoak sortu ditugu guztioi arropaz etabarrez aldatzeko denbora egon dadin. Denborak oso neurtuta daude.

— **Alberto:** Dena den, pertsonaia guztiak dira beharrezkoak, hau da, ez dugu pertsonaia kopurua handitu obra ikusgarriagoa izan dadin.

— **Talde kide bat galdu duzue. Zein da "Tunantes del Norte" ren egoera orain?**

— **Ander:** Burua altxatzen hasi gara. Bi tekniko berri sartu dira taldean, Gorka Arias eta Jose Antonio Guerrero baina aktore gehiago behar ditugu, batez ere neskak, Mentxu da emakume bakarra eta. Ateak zabalik ditugula esan nahi diegu arrasatearrei.



Ruben Arriolabengoa

Jacinto Medikua (zirujaua), Mr Wellcome (Wellcome laborategietako arduraduna).



Mentxu Bastardo

Sor Milagros (Hemorragioren izeba moja), Emakume intolerantea.



Alfonso Alvarez (Lorillo)

Erizaina, "Tragafuegos" (bitxoaren laguna), Kardinalea.

ZARZUELA

Zartzuela zapatu gauean

Madrilgo Opera Komikoak Miguel Ramos Carrión eta Federico Chuecaren "Agua, azucarillos y aguardiente" eta "Chaleco Blanco" zartzuelak eskainiko ditu zapatuan gaueko 10etan Amaia Antzokian. Madrilgo Korallak Ostravako Antzerkiko Opera Nazionalako Orkestrarekin kantatuko du Luis Remartinezen zuzendaritzapean.

Zartzuelaren bi obretan, Milagros Martin sopranoak eta Madrilgo Opera Komikoko lehendakariak, Soraya Chaves mezzosopranoak, Enrique del Portal tenorea eta Luis Alvarez baritonoak kantatuko dute.

Sortu zenetik, Madrilgo Opera Komikoaren helburua bere erreperitorioaren kalitate musikala eta teatrala ezagutzera ematea izan da. Bere emanaldiak opera mundutik urrunduta dauden publikoei zuzenduta daude.

Madrilgo Albeniz Antzokian, Bilboko Arriagan, Valladolideko Calderonen eta Malaga, Mallorkako Palma eta A Coruñaiko Opera Festibaletan arrakasta handi eta entzutetsuak lortu ditu talde honek.

Zartzuela emanaldirako sarrerak Amaia Antzokian salduko dira 3.500 ptatan bazkide ez direnentzat. Bazkideek gaur dute azken eguna sarrerak 2.500 ptatan akademian erosteko.

HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

ZARRAOA
lurrindegia perfumeria

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



G

aurko argazkia ez da aparteko zaharra, zortzi-hamar urte inguru izango ditu gehienera jota. Dena den, orrialde honetara ekarri nahi izan dugu bi arrazoiengatik: bata Rugby taldeak lortu duen maila igoeragatik; bestea, orain gutxi hil den Juan

Garairi omenaldi gisa.

Argi dagoenez Iturripen aterata dago argazkia. Bertan agertzen direnak, honako hauek: Zutik, **Francisco Gimenez, Mikel Biteri, Juanito Garai, Mikel Arregi, Patxi Gorosabel, Imanol Aias-**

tui, Claudio Merchan, Dani Mendizabal, Benancio Urrestarazu, eta Peio Iriart. Makurtuta, Gaizka Gisasola, Julio Marañon, Axeri, Bittor Rodriguez, Jon Iria, Rikardo Ercilla, Jose Uribarren , eta Jon Egiluz.

ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.


**SEGUROS
BILBAO**

- Bizitza
- Etxebizitza
- Autoa
- Etabar

Otalora Lizentziatua, 5


20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67


ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

**PUB
HAIZEA**




Z E R N A H I A G O ?

Ander Landaluze

“Landaluze” haragitegikoa

- Okela asko jaten duzu? Bai.
- Zein duzu gustokoen? Txahala.
- Arraina ala okela? Okela.
- “Behi eroen” gaitzagatik salmenta jeitsi da zuen harategian? Ez, alderantziz: jende gehiago etorri da harategira.
- Zer jaten dute zuen behiek? Labela duten jakiak.
- Non ibiltzen zara motorrean? Triala egiten dut eta inguruko mendietan ibiltzen naiz. Anboto aldean da onena. Eskiatzea ere asko gustatzen zait.
- Zein motor daukazu? “Fantic”. Italiarra da.
- Inoiz izan duzu istripurik? Larririk ez.
- Emaztea ere ibiltzen da? Karreterakoa nuenean bai baina orain ez.
- Zenbat arrasatear pasatzen da egunero harategitik? 400en bat. Ostiraletan gehiago.
- Gizonezkoak ala emakumezkoak gehiago? Emakumezkoak.
- Zer izan nahi zenuen txikitan? Harakina.
- Gustatzen zaizu zure lana? Bai, asko.
- Arrasatearrek badakite haragi ona aukeratzeko? Bai.
- Yogurra ala mamia? Yogurra.
- Noiz da zure urtebetetzea? Abuztuaren 6an.
- Hirian ala herrian bizi: zer nahiago? Kale-baserrian.
- Kotxea ala motorra? Bidaiatzeko kotxea baina hobby bezala motorra.
- Abiadura gustatzen zaizu? Ez gehiegi, geroz eta gutxiago.
- Haragia moztekoan egin duzu inoiz ebakirik? Bai baina gutxi.
- Noiztik da zure familia harakina? Arrasaten 1940tik.
- Emazteak egin dizun azken oparia? Eguzkirako betaurrekoak.
- Eta zuk berari? Liburu batzuk.



LABURRAK

Liburua argitaratu

Udalak onartu egin du Jose Mari Velez de Mendizabalek “Nire haurtzaroko Arrasate” izenburupean idatzituen liburua argitaratzea. Udalak eta Kutxa Fundazioak estaliko dute argitalpenaren kostua. Udalak 340.000 pta. jarriko ditu.

Hika ikastaro berria

AEDk Mondragoeko hika ikasteko ikastaroa antolatuko du apirilaren 27an eta 28an Arabako aterpetxe batean. Izenematea AEDn egin behar da lehenbailehen, plazak mugatuak dira eta.

Jaietako kartela

Udalak San Juan jaietarako kartelaren lehiaketaren deialdia egin du. Kartelen neurriak 50x70 zm.koak izango dira eta formatoak nahitaez bertikala izan beharko du. Teknika libre da eta kartelek “1996 San Juan Jaiak Arrasate” testua eraman beharko dute derrigorrez. Kartelak maiatzaren 17a baino lehen Udaletxeko Kultura sailera bidali behar dira.

CRISTINA GARCIAINDIA Doktoreak

jakinarazten dizue
DERMATOLOGIA KONTSULTA BERRIA
 zabaldu duela
 Arrasaten

Centro Médico Udalaiz (79 44 22)
 Ferrerías, 56 • ARRASATE

Jesus J. Giraldo


Liseriketa aparatua

- Lagun-Aro
 - PREVIASA
 - Foru Aldundia
 - Partikularrak
- Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara.


Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2.B Tfnoa: 79 04 14 ARRASATE

*“Edozein herrik
gehiago defendatzen
ditu bere ohiturak
bere legeak baino”*

MONTESQUIEU



Aspaldian ikusi duzu Mitxel?



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Enrike, Arrasateko korrikalaria. 8. Azotea erabiliz norbait kolpatu. 9. Zati puska. 10. (Ald.) Hiru adierazten duen aurrizkia. 12. Musulmanen jainkoa. 13. Boom bateko bokalak. 14. Alfabetoko 2. letraren izena. 15. Punta, tontor. 16. Eskutur. 18. Mila kiloko pisu-neurria.

Bertikalak 1. Zerraldo, hilkutxa. 2. Sakona ez dena, azalean dagoena. 3. Jaurtiki. 4. Arnas gabeziak hil. 5. Kristoren aurreko-ren laburdura. 6. Addis Abeba hiriburu duen estatua. 7. Mitra. 11. Bolatxo-itxurako likidu-masatxikia. 13. Ahoari dagokiona. 15. Baiezkoetan, baita, ezezkoe-tan, ezta. 17. (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan.

Aries Ez duzu esan beharrik, antzematen da pozik zaudena.

Taurus Hilabete honetan urdaiaz-pikoa jatea gomendatuko nizuke.

Gemini Kontuz ibili ilargiarekin, asko eragiten dizu-eta.

Cancer Udan basamortura joatea ez da ideia txarra. On egingo dizu.

Leo Lapurrak etxean sartuko zaizkizu. Ondo itxi atea.

Virgo Udako bainujantzia sartzen zaitu? Espabilatu!

Libra Zelako buruhausteak ekartzen dizkizun maitasunak!

Scorpio Noizean behin sudur zuloak garbitu, mari zikin!

Sagitarium Abiadura handiegian gidatzen duzu. Mantxoago ezin ala?

Capricorn Lagunartean jatorra zara baina etxean...

Aquarius Futbola bai baina beste hainbat gauza ere ikus daitezke.

Piscis Udan ere pijamarekin egiten duzu lo?




JUAN
GARAI ETXEBESTE



Maite zaitugulako:
Azken agurra egin beharrak
gaur gure Juaneri
tristura hutsez ingurukoak
ipini gaitu negarti;
baina gauean entzun diogu
zeruko beste izar bati
irrifar batez guri begira
izango zarela beti.
Ez zaitugu ahaztuko.

ZURE LAGUNAK



TELEBISTAREN TXOKOA



Nor Nori Rock-en lehiaketa

Nor Nori Rock musika saioko langileek kamisetak, maketak eta CDak irabazteko aukera eman nahi dizuete. Horregatik, geratzen diren azken hiru programetan musika talde baten bideoa erakutsi eta partehartzaileek zein talde den asma-

tu beharko dute. Erantzunak Arrasate Telebis-tara bidali edota bertan utzi daitezke. Erantzunarekin batera partehartzaileen izena, abizena eta telefonoa jarri beharko da. Sarrituen izenak azken programan emango dira ezagutzera.

KOMIKIA



Zaguar.

Otxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozotaria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko urdo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Jeroglifikoak:

Laz herritan.
Ere. 17. (Ald.) An.

pta. 7. Tur. 11. Tanta. 13. Oral. 15.

Bertikalak: 1. Karabur. 2. Azale-

ral. 18. Tonelada.

13. Oo. 14. Be. 15. Erpin. 16. Uka-

tan. 9. Taro. 10. (Ald.) Ir. 12. Ala.

Horizontalak: 1. Kabiketa. 8. Azo-

PROGRAMAZIOA



19 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Elkartean (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

9.30etan

Astebete

Gaia: Aita Menni ospitalak Deba Garaian Zentru Psikogeriatriko eratzeko egin duen proposamena.

Gonbidatua: Kontxi Alvarez, Lan Sozialeko saileko burua eta Elena Berezibar, Gizarte langilea.

22 Astelehena

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Astebete (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

23 Asteartea

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Mondrasport (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

24 Asteazkena

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Barrelekaixoka (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Nor Nori Rock
Freesbi eta Sanchis y
Jocano. Lehiaketa

25 Osteguna

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Nor Nori Rock (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Elkartean
Txalaparta

26 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Elkartean (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

Etxebizitzak

- **Etxebizitza salgai Ferixalekuan.** Tfnoa: 79 01 42. Dei egin 8etatik aurrera.
- **Arrasaten gela baten bila nabil** edo pisua osatzeko jendea nahiko nuke. Tfnoa: (94) 461 41 86.
- **Pisua salgai erdialdean.** 90m². Ganbara eta garage itxiarekin. Tfnoa: 79 42 13.
- **Erdiko kalean etxebizitza salgai.** Arratsaldez dei egin, 79 03 59 tfnoa.
- **Bergaran lokala alokatzen da** medikuntza kontsultategi edo ofizinetarako gertatua. Tfnoa: 76 58 91.
- **Laredon apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 52 80.
- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73

Lana

- **Neska esperientziadunak** umeak zaindu eta etxeko lanak egingo dituzke. Tfnoa: 79 53 57. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Neska gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17.
- **Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz** edo beste hizkuntza batzutan ipuin pertsonalizatuak egingo dira. Tfnoa: 79 47 54.
- **Marrazketa diedrikoaren klaseak** jasoko nituzke. Euskaraz ahal bada. Tfnoa: 79 32 10. Iratze.
- **Ileapaindegian diplomadun** neska esperientziaduna lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81.
- **Etxeko lanak egin,** umeak zaindu edo bulegoak garbitzeko esperientziadun neska gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Neska prest umeak zaindu** eta etxeko lanak

egiteko. Tfnoa: 79 37 09.

- **Klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 77 02 42.
- **Neska prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 71 44 65.
- **Esperientziadun neskek,** OHoko klase partikularrak emango dituzke euskaraz zein erdaraz. Tfnoa: 79 25 09. Ana.
- **Enpresa zientzietan** lizentziatua klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 06 39.
- **Ingenerutzako ikasle bat** euskarazko klase partikularrak emateko prest. OHO, BBB eta UBI. Tfnoa: 79 74 18
- **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostegunera 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 79 66 55.

• **Klase partikularrak ematen dira** erdaraz. EGB, BUP, COU, FP, FP II. eta Pascal programazioarenak. Tfnoa: 79 27 88.

• **Neska gaztea hostalaritzan** eta umeak zaintzen esperientziaduna lan egiteko prest. Tfnoa: 79 62 06.

• **36 urteko emakumea pertsona zaharrak** gauzez zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 44 62. Goizez edo arratsaldeko 8etatik aurrera.

• **Ileapaindegian estilista profesionala** behar da, ostegun, ostiral eta larunbatetan lan egiteko. Tfnoa: 77 09 44. Dei egin goizeko 10etatik arratsaldeko 4ak arte.

• **Euskarazko klase partikularrak behar ditut.** Tfnoa: 79 98 28. Mirian.

Salerosketak

• **Gorputz erdiko solarium-a salgai.** Tfnoa: 79 23 58.

• **Osagarri guztiak dituen sukaldea salgai.** Merke merkea. Tfnoa: 79 89 07. Kandi.

• **Gela baterako bitrina txiki bat erosiko nuke.** Tfnoa: 79 23 58.

• **Bebe Confort-eko Turbo Twin** birkiendako kotxea salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 10 23 22.

• **R-5 salgai.** Bost atekoa eta 10 urte ditu. 90.000 pta. Tfnoa: (94) 681 98 65. Gauez.

• **"Documentos", "Enciclopedia Larousse", "Enciclopedia Vasca"** eta "Historia de Euskal Herria" salgai. Tfnoa: 79 59 43.

• **Yamaha Super Tenere 750** salgai prezio interesgarrian. Goio. Tfnoa: 79 80 61. Arratsaldez.

• **Nikon AF, 70-210 mm.** objektiboa salgai. Parasol eta filtroarekin. Tfnoa: 76 52 31. Jesus. Gauez.

• **Bi ardi txakur kume salgai.** Tfnoa: 79 35 68.

• **Biondi konpetiziorako bizikleta salgai.** Shimano konponenteak. Egoera ona. 50.000 pta. Tfnoa: 79 49 30.

• **Wolkswagen 1.200** eskarabajoa salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tfnoa: 77 07 75. Gauetan.

• **Seat Ibiza, SS-Z salgai** 150.000 pta.tan. Tfnoa: 79 97 38.

Denetarik

• **Edozein arrazako txakur kume** emea hartuko nuke. Tfnoa: 76 26 52 edo 79 83 50.

• **Udalatik Udalaitzerako** bidean erlojuja galdu nuen joan zen astean. Norbaitek aurkitu badu dei diezadake 79 92 09 tfnoa. Eskertuko da.

• **Joan zer martxoak 9-10 Otazako Hika** ikastaroan AEKko "Talde dinamika" liburua galdu genuen. Honen berri daldin baduzu dei egin 79 03 69 tfnoa.

• **Citroen markako kotxeko giltzak** aurkitu dira. Zureak badira pasa Arrasate Pressetik.

Aste Gazte

Lana

• Hezkuntza ertaineko herri-ikastetxeetako ordezkapenetarako izengaien zerrenda ireki da, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan. Titulazioa: doktore, lizentziatua, ingeniari edo arkitektoa. 1. eta 2. hizkuntz eskakizuna izatea eskatzen da. Epea: etengabeko epe irekia.

Ikastaroak

• Hastapen mailako argazki ikastaroa larunbat goizetan. Maiaztetik ekainera. Izen emateak Gazte Bulegoan.

Euskadiko Gazteak Lanki-

detzan

• Hegoamerika, Afrika eta Asiako hainbat herrialdetan kooperazio egitasmotan parte hartzeko programa. Ikasketak eta kooperazio lanetako esperientzia baloratuko da. Egonaldiak 1-4 hilabeteak izan daitezke. 20-30 urte bitartekoei zuzenduta. Epea: apirilak 26.

Bekak

• "Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailak", Kanpo Merkataritzaren arloan adituak prestatzeko beketarako deia egin du. Goi mailako titulua izatea, batez ere Ekonomia edo Enpresa Zientziak,

Zuzenbidea, Injenierutza edo Informazio Zientziak. 32 urte baino gutxiagokoei zuzenduak. Epea: maiatzak 15.

Udalekuak-96 (Diputazioa)


• Diputazioak antolatutako udalekuetan parte hartzeko aurreinskripzio epea zabalik dago apirilaren 29ra arte. Adina: 7-13 urte. Aurreko urteetan legez, zozketa egingo da. Dokumentazioa: inskripzio orria eta NANA edo Familia Liburuaren fotokopia. Izenematea: Gazte Bulegoan.

Lehiaketak

• Eibarko Udalak, 96ko San Juanen kartelaren lehiaketa deitu du. Gaia, norberaren aukeran. Neurriak, 70x50 zm. Saria 60.000 PTAkoa izango da. Epea: maiatzak 17.

"Berrito bizi nahiko nuke oroitzen hau baina orain itzalita dago... ia ezerk dirau urrun dago, nere nerabegaroko urteetan".

KONSTANTINO KAVAFIS



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabilioia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE



Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!

Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan:** ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatuak, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.


BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 


TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.